

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2024-2025 denboraldia
(2024ko irailaren 30etik 2025ko irailaren 28ra)

12. astea (2025eko martxoaren 17tik 23ra)

Gripe-birusaren zirkulazioak beheranzko joerarekin jarraitzen du, ABSk bezalaxe. COVID-19 kasu kopurua balio baxuetan mantentzen da.

- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 333,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (337,6/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak behera egiten jarraitzen du. Bronkiolitisaren tasak behera egin du aste honetan eta COVID-19arena balio baxuetan mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 35 lagin jagoleen % 65,7 baieztatu da, 3 gripe-birus, ABS bat eta SARS-CoV-2 bat detektatu direlarik.
- Osakidetza ospitale-sarean AIA larriaren tasa 11,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (13,0/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemak, aste honetan, 130 gripe-birus, 43 SARS-CoV-2 eta 34 ABS erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIaren intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 333,1 kasukoa izan da (337,6/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 287,5/100.000 izan da Araban, 340,3/100.000 Bizkaian eta 342,8/100.000 Gipuzkoan.

AIaren intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arreta-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, AIaren tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 2881,6 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urteko adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1488,8 eta 480,9 kasurekin, hurrenez hurren.

AIaren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 134,8 kasukoa izan da (137,7/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) arabeko intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI batzuetan eta gora besteetan aurreko astearekin alderatuta.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE

ESI	Tasa 12. astea	Tasa 11. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	310,0	304,8	1,02 (0,93-1,12)
Arabar Errioxako ESI	578,1	416,6	1,39 (0,96-2,00)
Barakaldo-Sestaoko ESI	295,7	302,8	0,98 (0,85-1,13)
Barrualde-Galdakaoko ESI	341,0	349,4	0,98 (0,90-1,06)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	373,7	354,9	1,05 (0,97-1,14)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	361,0	336,2	1,07 (0,96-1,21)
Uribeko ESI	272,0	244,2	1,11 (0,99-1,25)
Bidasoako ESI	286,2	376,8	0,76 (0,64-0,90)
Debararrenako ESI	350,7	361,9	0,97 (0,81-1,15)
Debagoienako ESI	289,8	314,7	0,92 (0,75-1,12)
Donostialdeako ESI	326,9	357,9	0,91 (0,84-0,99)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	382,7	390,0	0,98 (0,85-1,13)
Tolosaldeako ESI	388,5	465,9	0,83 (0,71-0,99)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMako gripe-sindromearen tasa 7,5 kasu 100.000 biztanleko balioraino jaitsi da (9,7/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) behera egin du eta 100.000 biztanleko 224,4 kasutan kokatu da (242,3/100.000 aurreko astean). COVID-19arena baxu mantentzen da eta 100.000 biztanleko 1,9koa izan da (2,0/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 35 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 65,7 baieztatu dira. 3 gripe-birus (guztiak AH3), ABS bat eta SARS-CoV-2 bat atzeman dira. 5 metapneumobirus eta 5 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMA eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2024-2025, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna % 8,6raino jaitsi da aste honetan (% 22,4 aurreko astean). ABSren positibotasuna % 2,9an mantendu da (% 2,0 aurreko astean), SARS-CoV-2aren balore berdina (% 0,0 aurreko astean). Metapneumobirusaren eta errinobirusaren positibotasuna % 14,3koa izan da (% 6,1 aurreko astean bietan).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2024-2025, EAE

	12. astea		11. astea		2024-2025 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	3	8,6	11	22,4	508	32,8
SARS-CoV-2	1	2,9	0	0,0	26	1,7
ABS	1	2,9	1	2,0	69	4,5
Metaneumobirus	5	14,3	3	6,1	36	2,3
Parainfluenza	4	11,4	1	2,0	55	3,6
Adenobirus	4	11,4	3	6,1	65	4,2
Errinobirus	5	14,3	3	6,1	261	16,9
Urtaroko CoV	1	2,9	14	28,6	76	4,9
Enterobirus	0	0,0	1	2,0	38	2,5

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik erarortzen direnak. AIAL tasa 11,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (13,0/100.000 aurreko astean), 12,1/100.000 gizonetan eta 10,1/100.000 emakumeetan.




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 34,3 kasurekin, ondoren urte batetik beherakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 29,6 eta 9,6 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 1,3koa izan da 100.000 biztanleko (1,7/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena 0,3koa 100.000 biztanleko (0,4/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,3 kasukoa 100.000 biztanleko (0,2/100.000 aurreko astean).

**Tasa por temporada y semana epidemiológica.
Red hospitalaria de Osakidetza. 2024-2025, CAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak behera egin du aste honetan eta % 16,4an kokatu da (% 18,9 aurreko astean). ABSren positibotasuna jaitsi egin da eta % 4,1ean kokatu da (% 7,4 aurreko astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 4,7raino igo da (% 2,2 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE

	12. astea		11. astea		2024-2025 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	191	4,7	226	2,2	6996	2,1
Influenza	177	16,4	217	18,9	6363	26,0
ABS	169	4,1	203	7,4	5886	12,3

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 130 gripe-birus, 43 SARS-CoV-2 eta 34 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 130 gripe-birusetatik, 93 A motakoak izan dira, 28 A(H3), 8 A(H1)pdm09 eta bat B motakoa. 2024/40 astetik 8909 detekzio erregistratu dira, 6917 (% 77,6) A motakoak eta 1992 (% 22,4) B motakoak. Azpitipatutako A motako 3455 birusetatik, 2327 (% 67,4) A(H3) eta 1128 (% 32,6) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2024-2025, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko martxoak 26

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza